

# HAMABOST ZAURI

## 2. atala: ZAURI KRONIKOAK

1. Maitasun kontuetan hauetatik zein deitu daitezke zauri kronikoak?
  - A. Adarrak behin eta berriro ipini dizkizute.
  - B. Bikotekidearekin hilean behin haserretzen zara, gogor.
  - C. Urtetan ahozko mespretxuak eta biraoak entzun behar izan dituzu.
  - D. Adarrak behin baino ez dizkizute jarri.
  - E. Etxeko lanak ia beti egin behar izaten dituzu.
  - F. Zuen urteurrena lantzean behin ahazten zaio.
  
2. Zergatik esaten du protagonistak ez diola inoiz bikotekideari egindakoa barkatuko? Zer ez dio barkatu behar?
  
  
  
  
  
  
  
  
  
  
3. Zer inportantzia daukate galdutako bikotekidearen objektuek desamodio kontuetan? Haren argazkiak apurtuko zenituzkete? Zergatik?

**Idatzi ezazue horrelakoetan mingarri izan daitezkeen objektuen zerrenda eta azaldu zergatik gerta daitezkeen mintsuak:**

- Haren arropa
- Haren argazkiak, gu bion argazkiak
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 

4. Zer gertatuko zitzaion Olatzi etxera negarrez eta etsita bueltatzeko?

**5. Lotu itzazue baliokideak:**

A. Ez dio sekula barkatuko

A1. Egundo

A2. Egunero

A3. Noizbait

B. Ez du barkamenik merezi

B1. Lore askorik

B2. Aukera berririk

B3. Iruzur berririk

C. Oharra amorruez apuntu du

C1. Amultsu

C2. Tentuz

C3. Erneguz

D. Olatz agertu da, negar batean

D1. Negar malkoak

D2. Negar-negarrez

D3. Negar zotinka

E. Sarrailaren hotsa entzun du

E1. Txirrinaren zarata

E2. Atearen irekiera

E3 Sarrerako krisketa

F. Olatzek adatsa bustirik dakar

F1. Ilea

F2. Zira

F3. Betileak

5. Nire bikotekideak adarrak jarriko balizkit, kasua zein den, honako hau pentsatuko nuke:

A. Adarrak nire familiako batekin edo nire lagun min batekin jarritz gero,...

B. Adarrak ni baino askoz gazteagoa den pertsona batekin jarritz gero,...

C. Adarrak bere sexu bereko batekin jarritz gero,...

## 6. IDAZLANERAKO ESKEMA

Gaia: ADARRAK, ENGINUA

### A. Sarrerak

A1. Pasadizoa: adar-jartze kasu bat ezagutzen dut...

A2. Datu estatistikoa: gizon ezkonduen erdiek aitortzen dute inoiz ibili direla beren bikotekidea ez den pertsona batekin...

A3. Konparazioa: gure aitita-amamen denboran bikotearen barruko engainua...

B. Tesia: gero eta ziri-sartze gehiago daude bikoteetan, gaur egungo bizimoduak horretara garamatza eta.

### C. Kausak:

- 
- 
- 
- 

### D. Ondorioak:

- 
- 
- 
- 

### E. Konponbideak:

- 
- 
- 

### F. Iritzia: